BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1401

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 4koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, argitara ematen da honako deialdi honetako dirulaguntzen erakunde onuradunen zerrenda: Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2019-2021eko deialdia.

Dirulaguntza publikoak ematerakoan, publikotasun-printzipioa bete beharra dago. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2019-2021eko dirulaguntzen deialdiak 7.10 artikuluan ezartzen duenez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiren ebazpen bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara emango da zein diren deialdi horren babesean emandako laguntzen erakunde onuradunak eta jasotako zenbatekoak (Lanbideko Administrazio Kontseiluak 2019ko uztailaren 4ko bilkuran onartutako Erabakiaren bidez onartu zen deialdi hori, eta 2019ko uztailaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu).

Hori dela eta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea honako deialdi honen dirulaguntzen onuradunen zerrenda: Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabetuen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egiteko 2019-2021eko deialdia. Zerrenda ebazpen honetako eranskinean dago, eta honako hauek adierazten dira han: espediente-zenbakia, dirulaguntzaren xede den prestakuntza-ibilbidearen izena, zer lurralde historikotan emango den, erakunde onuradunaren izena eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 4a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

Espedientea	Prestakuntza-ibilbidea	Lurralde historikoa	Erakundea	Dirulaguntzaren zenbatekoa
19010144	Ibilgailuak	Araba	Fundación Adsis	110.250,00 €
19010149	Elektrizitatea + Mekanizazioa	Araba	Fundación Adsis	116.250,00 €
19480857	Iturgintza + Elektrizitatea	Bizkaia	Escuela Profesional de Otxarkoaga	118.500,00 €
19480918	Elektrizitatea + Mekanizazioa	Bizkaia	Peñascal S. Coop.	116.250,00 €
19480906	Sukaldaritza + Zerbitzua	Bizkaia	Peñascal S. Coop.	115.500,00 €
19480893	Merkataritza + Administrazioa	Bizkaia	Peñascal S. Coop.	115.500,00 €
19480898	Arotzeria + Altzarigintza	Bizkaia	Peñascal S. Coop.	118.500,00 €
19480862	Ibilgailuak	Bizkaia	Escuela Profesional de Otxarkoaga	110.250,00 €
19480922	Elektrizitatea + Elektronika	Bizkaia	Peñascal S. Coop.	113.250,00 €
19480871	Estetika + ile-apainketa	Bizkaia	Escuela Profesional de Otxarkoaga	120.750,00 €
19200750	Iturgintza + Elektrizitatea	Gipuzkoa	Peñascal S. Coop.	118.500,00 €
19200755	Sukaldaritza + Zerbitzua	Gipuzkoa	Peñascal S. Coop.	115.500,00 €
19200746	Elektrizitatea + Elektronika	Gipuzkoa	Asoc Pro Educación Especial Colegio Ortzadar	113.250,00 €